

Goierritarra

345. zenbakia 2008ko uztailak 18

Adimen-urrikoen

EGUNEKO ZENTROA

www.fotoetxe.com

DIGITALETIK ARGAZKIRA
FUJIFILM-EN KALITATE
KONTROLPEAN



berogas

langile elkarte, s.a.l.

Berokuntza, gasa, aire girotua, iturgintza.
Instalazio industrialak eta etxeok, eguzki-energia.
Sukaldeko eta bainuko altzariak, etxetresna elektrikoak.
Aluminiozko eta Poliuretanozko leihoak .

Denda: Pº San Francisco, 10 – 20400 Tolosa
Tel.: 943 653 307
Tel. / Fax: 943 650 520
E-mail: muebles@berogas.com

Bulegoak: Polg. Usabal, pab. 11A – 20400 Tolosa
Tels.: 943 672 620 / 943 675 977
Fax: 943 675 421
E-mail: berogas@berogas.com

www.berogas.com



POLIURETANOZKO LEIHOAK



Medikuntza eta zirugian lizentziatuak:


I. Fdez Ornaburu Dra.
(Medikuntza estetikoan masterra)
A. Ramirez Baigorri Dra.

● GANTZA KIRURGIARIK GABE KENTZEN DUGU
ultrasoinuen bidez

NOBEDA

ULTRASHAPE CONTOUR I Metodoa

- laser depilazioa
- aurpegiaren gaztetzea
- peeling-ak, betetzeak
- toxina botulinikoa: zimurrak
- aurpegi eta gorputzeko mesoterapia
- gizentasuna, zelulitia, masajeak
- azal azpiko terapia: LPG



R.P.S.:32/04

BERTSOTAN



Iñaki Apalategi

Mundua guztiz globaldu zaigu zilegi da esatea edonon dago beti edozer, hau biztanleen zortea! posible dugu Nepala edo Marokora joatea supermerkatu handi batean nahi duguna erostea: Colombiako kafea edo Keniatik dakarten tea, niki txinatar bat, erabiliz Chadeko kotoi merkea zein polita den multikultural omen dugun gizartea inork ez badu gorantz pasatzen Gibraltargo itsasartea.

Etorkinen legeak

Gure enpresek, hedatu nahian hainbeste muga igaro, zenbait kanpotar datozenean ixten direnak zeharo. Hargatik ondo bizi naiz baina batere ados ez nago: iparraldeak hegoaldeetik edaten du hainbat trago, baina hegoak iparraldeetik ez egitea nahiago. Gero gu giza eskubideez mintzo ezin harroago: "munduan denak gara berdinak", hori oso argi dago; baina batzuek ikusten ditut pixka-pixkat berdina.

Goierritarra

HAMABOSTEKARIA

Argitaratzailea:

Goierriko Hedabideak S.L.

Urbialde plaza, 7 - behea
BEASAIN

Posta elektronikoa:

goierritarra@goierrikohitza.info

Telefonoak:

Erredakzioa: 943 16 00 56

Faxa: 943 88 96 12

Publizitatea: 647 319 757

Harpidetzak: 902 820 201

Zuzendaria: Loinaz Agirre

Maketazioa: Mikel Albisu

Inprimaketa: Gertu

ISSN: 1132-0907

Lege gordailua: SS-926/89

Goierritarrak ez du bere gain hartzen derrigorrez, aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Goierritarra

diruz laguntzen duten erakundeak:

Itsasondoko udala



Gipuzkoako Foru Aldundia

AURKIBIDEA

4. Kolaborazioa: Ion Telleria.

5. Ingurugiro txokoa: EAEko espezie exotiko inbaditzaileak (III).

6. Euskara txukuntzen: Denetik XI.

7. Aholkua: Pisua ezin saldurik, alokairua alternatiba?

8. Elkarrizketa: 'Norteko trenbidea II, Otzaurte-Igartza' liburua.

14. Elkarrizketa: Adimen-urrikoen Eguneko Zentroan barneratuz.

18. Kirola: Urdaneta 500 I. Atletismo Topaketa.

21. Non zer.

24. Iragarki laburrak.

26. Argazki zaharra.



EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

DEPARTAMENTO DE CULTURA

Viceconsejería de Política Lingüística



Ion Telleria

**Herritarron
bitza
errespetaraztea
borondate
kontua da; beti
abal da, nabi
bada, noski...
eta gebienean
ez da nabi.**

45 segundo; 5 segundo; segundo 1

Laudio, urriaren 25eko goizeko bederatzia eta bost minutu; kalean ogia eta egunkaria erostera doazen herritar gutxi batzuk, asko ez dela zuhaitzen apaingarri zen orbelak janzen du espaloia, udazkeneko egun arrunt bat... belarri tenteko gizon bat ageri da kalearen amaieran, eskuan paper zuri-berde bat dakar, irakurtzeko 45 segundo aski diren bi galderekin. A! Ibarretxe da, bozkatzera doa!

Bere planaren 2. bertsioa aurkeztean hori ziurtatu zuen: "urriaren 25ean bozkatzera joango naiz". Espainiako botereak debekatu du galdeketa; bagenekien, eurek ere bai; beraz zertan aritu dira orain arte? Estatuari aurre egiten? Ez dut uste, badute hauteskundeetarako aitzakia, batuko zitzaizkien milaka herritar egin duten antzezpenaren ostean. Zorionak EBBko komunikazio arduradunei (Imazen magaleko Amatiño? Ez, barkatu, hori Petronorreko komunikazio arduraduna da orain). Orain diote espainiarrek gezurra diotela eta hori argitzeko informazioa zabalduko dutela galdeketa inguruan, ondo.

Beno, baina demagun berez EAJko buruzagiak gogoz ari direla, herritarrok erabakitzeko eskubidea izatea nahi dutela eta ez direla botereak itsututa ari. Eta imajinatzen hasita, demagun abiadura handiko tren bat egin nahi dutela, herri honetan inoiz egin den azpiegiturarik handiena izango dena, milioika euroko gastua eragingo duena. Eta demagun hori dena orain egin nahi dutela. Imajinatu guzti hori horrela dela.

Imajinatzen dut inork "gezurrik" esan ez dezan informazio guztia herritarron es-

kura jarriko luketela, euren lurak "denon onerako den azpiegiturari" utzi behar diotenek informazio guztia jasoko luketela, behar diren tramiteak (akten altxamendua, adibidez) denon begi-bistan egingo litzuketela (herriko udaletxeetan, adibidez), sortuko dituen gastu guztien berri izango genukeela, eta batez ere, proiektuari gure oniritzia eman ahalko geniokeela herritarrok, gure erabakitzeko eskubidea gauzatu.

Demagun galdeketa egingo zela; 45 ez, 5 segundo nahikoa lirateke galdera irakurtzeko: "Ados zaude Abiadura Handiko Trenaren eraikuntzarekin?"

Eusko Jaurilaritzak gezurra esatea leporatu dio Espainiako Gobernuari Ibarretxeren galdeketa inguruan; eta arrazoi du. Herritarren hitza ukatzen duenak beti baitarabil gezurra, ezkutukeria, egi-erdi samalda... ezin baitaiteke bestela. Baina gauza bera gertatzen zaio Gasteizko Gobernuari etxean. Herri honen erabakitzeko eskubidea Madrilgo eta Pariseko Gobernuek ukatzen dute, ez dut zalantzarik horretan, baina nork defendatzen du? Zail da pentsatzea etxekoekin defendatzen ez dutena kanpokoekin defendatuko dutenik.

Herritarron hitza errespetaraztea borondate kontua da; beti ahal da, nahi bada, noski... eta gehienean ez da nahi. Petronorreko presidente ez garenok, Amenaarren akziorik ez dugunok, erabakitzeko eskubidearen inguruko zirkuetatik negozioz egin ezin dugunok kalean jarraitu beharko dugu erabakitzen, uzten digutenarekin... edo gure eskutan hartzen dugunarekin. Segundo bat nahikoa baita, borondatea dagoenean.

Esperientziaren eskola

IRAUPENA

Urritik ekainera.

Astean hiru egunetan (asteartea, asteazkena eta osteguna).

Egunean hiru ordu goizez (10etatik 13etara)

IZENA EMATEKO

Goiekiren bulegoetan, Ordiziako Industrialdeko 18. pabiloian.

Tfnoa: 943 16 15 37. Goizeko ordutegia: 8:00etatik 14:00etara.

Antolatzaileak:



Kolaboratzaileak:



EAEko espezie exotiko inbaditzaileak (III)



Banbu japoniarra

(*Reynoutria japonica*)

Izen arrunta: Banbu japoniarra.

Itxura: Belar-landarea da, zurtoin gorri-ka, eta hosto erorkorak dituena. Lore zurriak ditu, mordoka biltzen direnak.

Jatorria: Asia.

Historia eta hedapena: Landare hau XIX. mendean sartu zuten erlezainek Europan lehen aldiz. Normalean ibaiertzetan ezartzen da, baina baita zona degradatueta ere (bazter, orube, etab.). Getxon (Bizkaia) eta Azpeitian (Gipuzkoa) ikus dezakegu honen adibide bat.

Ondorio negatiboak:

- Bertako landaredia baztertzen du, itzelezko orban monoespezifikokoak sor ditzakelarik.
- Ekonomian eragina: Lan hidraulikoak isaten ditu, neguko uholdeetako alde sikuaren arrastaketa dela eta.



Sasiarkazia

(*Robinia pseudoacacia*)

Izen arrunta: Sasiarkazia.

Itxura: Hosto erorkorreko zuhaitza da, 15 metro izan dezakeena. Loreak zurriak eta usainsuak dira, eta mordoka batzen dira.

Jatorria: Hegoafrika.

Historia eta hedapena: XVII. mendean sartu zen Europan lehen aldiz landare ornamental bezala, eta baita egurgintzaren-gatik ere. Baso bide, ezponda, erreka eta abarretan zehar sakabanaturik aurkitzen da. Espezie hau, adibidez, Mutrikun (Gipuzkoa) eta Karrantzan (Bizkaia) aurki dezakegu.

Ondorio negatiboak:

- Bere hazkuntza oso azkarra denez, bertako espezieak baztertzen ditu (lizar eta urkia besteak beste).
- Bere loreek besteekin lehiatzen dute, intsektuak erakartzen baitituzte.
- Muturreko baldintzetan bizitzeko gai da, eta lurraren ezaugarriak aldatu ditzake.
- Espezie alergeniko eta toxikoa da, batez ere aberentzako.

Ibialde monografikoak - Hezkuntza eta Ingurumen Sailak

JAKIN BEHARREKOAK

'Via Campesina' ren europear Koordinakundea osatu dute Madrilen. 25 erakunde biltzen ditu eta 16 herrialdetakoak dira. Euskal Herriko EHNE talde honetako partaidea da. Nekazaritza sozialaren aldekoak dira, lurraldearen elikadura subirotasuna eta tokian tokiko nekazaritzaren babesa eskatzen dute.

Zaldibian AHT-ren Aurkako Akanpada uztailearen 24tik aurrera. Hamar egunetan zehar hainbat ekintza burutuko dira: mendi martxak, hitzaldiak, bertso saioak, erakusketa informatiboa hainbat herrietan, tailerrak... AHT-ren aurkako asanbladak antolatzen du. www.sindominio.net/ahtez

Aizkorri-Aratz Natur parkean ezingo da meategirik ustiatu. EAE Auzitegi Nagusiak arrazoia eman dio Ekologistak Martxan taldeak jarritako helegiteari. Lezen (Iarduaia, Araba) egin nahi zuten meategia ez doa aurrera. Parke Natural honetako Kudeaketa Plana (2004) meategiak zabaltzeko edo ustiatzeko baimenik ez ematea jasotzen zuen. 2006. urtean bi artikulu aldatu zituen Eusko Jaurlaritzak, Aizkorri-Aratzen lur azpiko meategiak ustiatzeko aukera emanez. Auzitegi Nagusiak artikuluak baliogabetu ditu. Parke naturalak eta meatze lanak erabat bateraezinak dira.

Denetik (XI)

Maizpide
euskaltegia

‘Kriston’ zer?

Kriston goxoa, kriston ondo... baina ‘ze kristo’ da hau? ‘Kristoren’ behar den bezala erabiltzen dugunean ‘egundokoa’ esan nahi dugu (eta izenari lotua agertuko zaigu).

- ✓ *Kristoren etxea ari da egiten Zeraingo Bartolo (zuzen).*
- ✓ *‘Kristoren martxa’ omen zuten Sanferminetan ezagutu-tako lagun australiarrek (zuzen).*
- ✓ *Kristoren etorkizuna omen du Amets Txurruka txirrin-dulariak (zuzen).*

Idazteko garaian aukeran egokiagoak omen dira ondorengoak: handia, izugarria, egundokoa...

‘Zerekin’ lotu? ‘Nora’ lotu?

Ez dira, bada, batere egokiak goiko galdera horiek! **Zerbait** lotzekotan... **Zerbaiti** lotu beharko diogu!

- ✗ *Mabaira lotu zituen bi astotxoak (oker).*
- ✓ *Mabaiari lotu zizkion bi astotxoak (zuzen).*
- ✗ *Paretarekin lotu zuen saskibaloian aritzeko uztai (oker).*
- ✓ *Paretari lotu zion saskibaloian aritzeko uztai (zuzen).*

Hizkuntzak ‘menperatu’ edo ‘menderatu’?

Gaztelaniaren eraginez egiten dugun akatsa da goikoa (“dominar una lengua” hori **hitz egin** edo **jakin** aditzen bidez adieraziko dugu Etxepareren hizkuntzan).

- ✗ *Sei bizkuntza menderatzen omen ditu Ezkioko Joxe Joakinek (oker).*
- ✓ *Sei bizkuntzatan hitz egiten omen du Ezkioko Joxe Joakinek (zuzen).*
- ✓ *Sei bizkuntza omen dakizki Ezkioko Joxe Joakinek (zuzen).*

“Pena mezi do jutek”

Penak alde batera utzita, horrelako egiturak txukun erabiltzen hasi beharko genuke, dedio! “Pena” hori sobera egoteaz gain, adibideko “jutek” horri bukaerako “-K” hori kendu egin behar diogu!

- ✗ *Pena merezi du Gasteizko jaietara joateak (oker).*
- ✓ *Merezi du Gasteizko jaietara joatea (zuzen).*
- ✗ *Steven Spielberg-en pelikula hori ikusteak pena merezi du (oker).*
- ✓ *Steven Spielberg-en pelikula horrek ikustea merezi du (zuzen).*



Hiru txerrikumeak berriketan, jo ta fuego!

Zuzendu, behar izanez gero...

1. Kriston ondo pasa genuen Lesakako jaietan.
2. Ez du pena merezi honaino etortzeak.
3. Kriston goxoa zegoen izeba Maritxuk egindako sagar-tarta!
4. Espainiarrek, oro har, hizkuntza bakarra dakite: gaztelania.
5. Hi, Antton, lotu kablea kamioiari... eta sartu ezak lehenengo martxa!

OHARRA: lehenengoan, *Oso ondo, primeran* behar du; bigarrenean, *ez du merezi honaino etortzea*; hirugarrenengoan, *goxoa baino goxoagoa, mundiala, oso goxoa*; laugarrena eta bosgarrena zuzenak dira.



kutxa

Pisua ezin saldurik, alokairua alternatiba?

AHOLKUA

Bigarren etxebizitza saltzeko asmotan dabilenak jada badaki egun ez dela momenturik onena hura saltzeko, ez behintzat erraztasunez eta epe labur batean. Azken urteotan etxebizitzaren prezioek izandako gorakadak goia jo duela dirudi, eta hauek erosleek ordaindu dezaketenaren mugatik oso gertu kokatu dira.

Honi gehitzen badiogu maileguak bereziki garestiak izango zaizkigula Euribor-aren gorakadaren ondorioz (%5,418 ekainean, inoiz ez bezain altua), bankuek ez dizkigutela azken urteetako erraztasunak ematen finantzaketa bila goazenean, eta erosle potentzialak merkatuaren ibilbidea zehaztu arte itxaroteko prest daudela, bi aukera besterik ez zaizkigu gertzen: etxebizitza saltzearen lana patxadaz hartzea, edo alternatibak bilatzea.

Eta alternatiba hori alokairuan aurkituko dugu. Saltzen ez den etxebizitza batentzako irtenbide egokia izan daiteke, kontutan hartuta momentu honetan alokairuaren eskaria oso altua dela. Beraz maizter egokia aurkitzeko aukera izango dugu, eta errenta interesgarriak jaso ditzakegu honen bitartez. Honek salgai jarri

genuen etxebizitza gure ondarean mantentzeko aukera emango digu, eta oraindik saltzeko asmoa mantentzen badugu, merkatua normalizatzen den arte itxaron dezakegu, orduan salduaz.

Hala ere etxebizitza bat alokairuan jartzea oso erabaki garrantzitsua da, eta abantailak ezezik, suposatzen dituen eragozpenak ere ezagutu behar dira.

Kontutan hartu behar da etxebizitza alokatua dugun bitartean oso zaila izango dela inor etxea erostean interesatzea, eta beraz berriro salgai jartzeko alokairua bukatu arte itxaron beharko dugula.

Etxebizitza saltzearen arrazoia bada etxebizitza berria erosi behar dugula, seguruenik alokairuak ez digu estaliko ez saltzeak maileguan suposatzen dugun kuota-igoera. Beraz, etxebizitza saldu beharrean alokairuan jartzen badugu, hileroko gastuak hazitzea suposatuko du.

Salgai izan duguna gure ohizko etxebizitza bada, ondorio fiskalak kontu handiz aztertu behar dira. Edozein higiezin saltzerakoan, hura erosi genuen salneurria eta saltzen dugunaren arteko aldea irabazia izango da. Behintzat hala ulertuko

du Gipuzkoako Foru Ogasunak, eta irabazi horren gainean %18a ordaindu beharko dugu. Aldiz, saldutakoa gure ohizko etxebizitza bada, eta ordainean jasotako dirua gure ohizko etxebizitza berria erosteko erabiltzen badugu, izandako irabazia salbuesia geratuko da, eta ez dugu %18 hori ordaindu beharko. Erosi genuen salneurria eta saltzen dugunaren arteko aldea handia denean, salbuespen honek aurrezten digun diru-kopurua ere handia izango da. Kontua da gure ohizko etxebizitza berria erosten dugunetik gure ohizko etxebizitza ohia saltzen dugun arte gehienez bi urte igaro daitezkeela, salbuespenaz onura izan nahi badugu. Hau da, urtetan zehar gure ohizko etxebizitza izan dena bi urte baino epe luzeagoan alokairuan jartzeak Ogasunari diru kopuru garrantzitsua ordaintzea eragingo digu gerora hura saltzen badugu.

Beraz, laburpen moduan, orain inork erosi nahi ez digun etxebizitza hori alokairuan jartzea oso aukera interesgarria izan daiteke, baina kontu handiz burutu beharreko operazioa da, abantailak zein eragozpenak eduki baititzake.



Daniel Martínez Piqueras
Gertu inmobiliaria
Beasain



©-Faxa: 943 88 95 76 Urdaneta, 41 ORDIZIA



ERREFORMAK

- ✦ Tximini eta ekonomikak
- ✦ Berogailuak
- ✦ Iturgintza
- ✦ Zeramika erakusketa
- ✦ Bainuko altzariak

SOLOZABAL
AUTO-ESKOLA

Mota guztietako
gida-baimenak

Aita Urdaneta

ORDIZIA

☎ 943 88 72 76

Pello Joxe Aranburu eta Luis Mari Intza, 'Norteko trenbidea II, Otzaurte-Igartza' liburuaren egileak:

“Zegamako Tunel handia, obra faraonikoa izan zen”

Madril-Paris trenbidean egin zen azkeneko zatia, Otzaurte-Igartza, aztertu dute Pello Joxe Aranburu eta Luis Mari Intzak, ‘Norteko Trenbidearen eraikuntza, ebaluaketa eta ondorioak Gipuzkoan. II. liburukian’. Zegama-

ko Tunel Handiko lanek, atal berezia dute liburuan. Garai hartan, tunelik luzeena zen. Berau egiteko, Italiatik eta Errusiatik milaka langile etorri ziren. Trenak, Gipuzkoaren garapenean izan duen eragina aztertu dute.

Erleenganako zaletasunak elkartu dituzte Maizpide euskaltegian hainbeste urtean irakasle izan den Pello Joxe Aranburu alkizarra eta Luis Mari Intza oñatiar-tolosarra. “Argazkiak ateratzen nituela ikusi zuen Pellok eta Ataungo Ogibide Zaharrak libururako argazkiak atera nituen. Gero eta gehiagora joan naiz. Photoshop-ean aritzen naiz”, adierazi du Luis Mari Intzak. Ordenadore aurrean ordu asko pasatu ditu Luis Mari Intzak. “Ez Pellok artxiboetan adina eh?” dio. “Informazioa bil-

tzen Pello ibiltzen da. Ni Peloren pintxea naiz”, gaineratu du.

Ordu eta egun askotako lanaren emaitza da ‘Norteko Trenbidearen eraikuntza, ebaluaketa eta ondorioak Gipuzkoan. II. liburukia. Otzaurte-Igartza liburu. 7-8 urteko lanaren fruitua. Duela urte argitaratu zuen bikoiteak lehenengo liburukia, Irun-Beasain trenbide zatia-ri dagokiona. Zumarragako geltokiari eskainitako hirugarren liburua ere osatu dute. Udazkenerako laugarrena ari dira prestatzen: Be-

saingo Paperak bildumarako, Beasaingo geltokiari dagokiona.

Ondorengo lerrootan dena den, uztailaren 17an Zegaman aurkeztu zuten ‘Otzaurte-Igartza’ trenbide zatia-ri dagokiona jorratuko dugu. Jarraian duzue bi protagonistei egindako elkarrizketa.

Nola heldu zenioten Norteko Trenbidearen gaiari, kasualitatez, bilatzera joanda...

Pello Joxe Aranburu: Kasualitatez. Duela 7-8 urte izan zen. Nahikoa ibilia nin-

tzen artxiboan Gerriko Ikerlan saria zela eta, eta bat-batean, Oñatiko artxiboan nengoela, Mutiloko Notario bat aurkitu nuen, Otaegi. Ze arraroa, ordurako herri txiki guztietako notarioak desagertuta zeuden eta! Begira hasi eta Zegamako ez dakit nongo trenari buruzko dokumentu pilo bat zegoen. Uztaila zen hura, oporren aurretik. Hortik hasita, Madrila Carlos Larrinaga historialariarengana joan nintzen, XIX. mendeko historialaririk onenetarikoa da. Hark bideratuta, Alcalá de



ZEGAMA OKINDEGIA
Eskuz egindako ogi naturala
 Intxausti eremua, 14G-14H nabeak
 ☎ 943 80 10 66 ZEGAMA

SALMENTA PUNTUAK:
Beasain: Oskarbi, Osina, Natxo dietetika, Ekilore. **Ordizia:** Sabino, Muno, Osasun eta Gorosti. **Lazkao:** Lasa, Viana eta Ainhoa dietetika. **Legorreta:** Dorronsoro. **Zegama:** Kooperatiba eta Maria Jesusen denda. **Segura:** Erosle. **Idiazabal:** Joxan harategia. **Ormaiztegi:** Inaki Erosle. **Zumarraga:** Rueda dendak, Centro 100. **Urretxus:** Dia. **Legazpi:** Jabi harategia, Izkuntza eta Patxo.



Erretegi bezala zabalik

- * Eguneroko menuak
- * Karta zerbitzua
- * Ospakizunak
- * Plater konbinatuak

Zubierreka,9 ☎ 943 16 25 23 LAZKAO

Henareseko Artxibo Orokorra joan nintzen. Espainia guztiko obra publikoko eta irakaskuntzako artxiboa dago. Han zeuden plano guztiak, itzela. Asko kostatzen da materiala lortzea.

Gai horri buruz ezer argitaratu gabe zegoela ikusteak bultzatu ninduen gai honi heltzera.

Luis Mari Intza: Oñatiko artxiboan, 12 metroko izara planoak aurkitu genuen. Tolosako zatia hartzen zuen. Gauza bat lortzea da, baina gero prozesatu egin behar da. Eskaneatu. Makina industrialean eskaneatu genuen. Plano guztiak CDan sartu ditugu.

Lehenengo liburukiak Irun-Beasain zatia hartzen du eta bigarrenak, Otzaurte-Igartza. Hau da, batean Beasain eta beste an Igartza. Zergatik aldaketa?

P.J.A.: Trenbidearen seinalizazioa piketeka, 100 metroka egina dugu. Euskaraz zutoina da. Eta 0 zutoina Igartza da. Zergatik? Ez dakigu. Horrela dago. Bigarren liburuan Igartzari eman diogu behar duen garrantzia. Beasain-Irun Igar-tzan hasten da, lehen Indar fabrika zegoen lekuan. Lehenengo liburuan ere hala jarri behar genuen, baina hala beharko du. Bigarrenean bai, Igartza jarri dugu. **Otzaurte-Igartza trenbide zatia izan zen, Madril-Paris trenbideko azkeneko zatia. Zergatik?**

P.J.A.: Azkenekoa eta kostatakoa. Ikaragarri zaila zen.

L.M.I.: Madril-Paris ahalik eta tokirik motxenetik lotzea zen beraien interesa. Toki motxenetik eginez gero, Gipuzkoa alde batera uzten zen. Baina gipuzkoarrak interesatuta zeuden trenarekin. Egin zuten lehenengo proposamena, Irurtzundik Tolosarako zen.

P.J.A.: Lehenengo proiektua, Baiona-Iruñea-Madril izan zen, Aldudetik barre-



Pello Joxe Aranburu eta Luis Mari Intza, 'Norteko trenbidea II, Otzaurte-Igartza' liburuaren egileak.

XIX. mende amaiera

(...) "Norteko Trenbidearen erakuntza 1858-1864 urteetan egin zen. XIX. mendean, Gipuzkoan biztanleria erruz ugaltu eta eskualdez eskualde hazkunde orekatua eman zen. Herrialde nekazaria ibai ertzetan, esaterako, Oria ondoan paper-fabrikak, Goierriin labe-garaiak, Donostian merkataritza, Irunen hirugarren sektoreko zerbitzuak eta beste hainbat eskualdetan sektore ezberdinak sortu ziren. Burgesia zen goraka zihoan klase berria, Europako ideia berrien defendatzaile sutsua, Euskal Foruak ere krisi larrian jarri zituen. Hirugarren Karlistada ondoren, foruak suntsitu eta Kontzierto Ekonomiko bat onartu zuten. Gipuzkoa nekazal lurraldea industrializatzeko, behar-beharrezkoa zen, besteak beste, garraio-bideak modernizatzea, pertsonak, merkantziak eta ideiak erraz mugitzeko, erruz merkatu askean. Garraioen munduan, ordea, trena izango zen bitartekorik iraultzaileena, azkar, merke eta kopuru handietan edozer garraiatzen zuelako. Testuinguru historiko horretan eraiki zen Norteko Trenbidea herri osoaren onspen eta bultzadarekin, hau da, liberalen eta karlisten eraginarekin.

Gipuzkoako, herri, sektore eta pentsaera anitzetako biztanleek bultzatu zuten garraio-bidea, Foru Aldundiak sutsuki aholkatu eta herritarrek oparo dirua mailegatu ondoren. Gipuzkoak XIX. mendean ipini zuen oinarri sendoenetako bat izan zen Norteko Trenbidearen erakuntza.

Paris-Madril trenbidearen azken zatia, Otzaurte-Igartza zatia, atzerriko ingeniariak Pirinioen igarobide deitua. Tratamendu berezia eskaini zioten aipatu ingeniari proiektistek eta Europako kapitalak batik bat eragin zituen Goierriko kostu handiko tunel, zubi eta obrak. Erakuntza hura XIX. mendean Gipuzkoan egin zen obrarik garrantzizkoena izateaz gainera, gure Herrialdeari barne egitura eman zion, bertako eskualdeen oreka bermatuz.

Trenbidea, 1864an, trenak igarotzeko moduan jarri eta inaugurazio ofiziala egin arren, asko kostatu zitzaion obrak amaitu, kexa eta arazoak gainditzea. Trenbidea inauguratu eta ondorengo urteetan kexa ugari jaso eta bideratu zituzten bertako alkateek. Gurdibi-deak mozturik eta trenbidea igarotzeko oztopoz josita egon ziren udaleremuak".

Desnibel handia

3.000 metroko Oazurtzako edo Tunel Handia egiteaz gain, bazen beste arazo bat ere. "Beasain itsasotik 160 metro ingurura dago; Zumarraga 300dik gora eta 600 metrora igo behar zuen trenak. Desnibel handia zegoen. Aldapa. Eta aldapa laua izanez gero, tira, baina Aizkorriko mendiak, Oazurtza eta Zumarragatik Ormaiztegi bitarteko zatian 12 tunel daude. Hainbeste erreka zulo eta zokogune, horixe zen arazoa", argitu dute Aranburuk eta Intzak.



na. Borroka gogorra izan zen.

Aizkorri aldeko zati zail hori tartean zegoela, azkenean zergatik erabaki zen Gipuzkoatik egitea?

P.J.A.: Paris-Baiona eginda zegoen eta Madril-Olazti ere bai. Lehenengo proiektua, Baiona-Iruñea-Madril zen, niretzat logikoa. Baionatik Iruñeara 100 kilometro. Altsasutik barrena, 200 kilometrotik gora. Nafarroan, Zaragozan eta Logroñon bazegoen merkatu bat eta horren alde egotea normala zen. Baina Espainiaren ideia zen, Espainiako produktua Frantziara atera aurretik, itsas portu bateraino eramatea, Donostiaraino hain zuten. Ikuspegi militarra ere kontuan hartu zen eta azkenean ejerzitoak erabaki zuen Gipuzkoatik egitea.

Ataundar batek ere egin zuen proiektua: Hondarribitik, Pasaiatik, Donostiatik, Lasartetik, Tolosatik, Senperetik, Atauna eta handik Etxarriara.

L.M.I.: Kezka handia izan zuten muga zabalduko ote zen. Horregatik, trenbidea zabalera ezberdinekoa egin zuten.

Donostian adibidez, interesa zen, geltokia portuan egitea. Trenak itsasoraino sartu behar zuen.

P.J.A.: Donostia harreresiz inguratutako herri kaskar bat zen. Gipuzkoa erabat desberdina zen.

L.M.I.: Halako interesa zegoen tren Gipuzkoatik pasatzeko, baldintza bat jarri ziotela: oso epe motzean, 35 milioi erreale biltzea (6 milioi pezeta bezala). Apai-zeke ere lan asko egin zuten, pulpitotik dirua eskatuz. Herriz herri bilduz zen dirua. Pello Alkizakoa da, Alkizak adibidez, 36 mila erreale eman zituen. Beasainek adibidez, 27.000 erreale.

P.J.A.: Kubatik 5 milioi

erreale etorri ziren. Gipuzkoako zatia 100 milioi pezeta kostatu zela kalkulatu dezaiegu. Diru hori dena kanpokoa zen.

L.M.I.: Jendeak inbertsio bezala jarri zuen dirua, garai hartan banketxerik ez zegoen eta. Negozio bezala. Diru piska bat zeukanak, trenean inbertitu zuten.

P.J.A.: Izen asko eduki zituen baina Sociedad General de Credito Mobiliario Español izan zen trenbidea egin zuena. Akzioak jartzen zituenari dirua itzultzeko obligazioa zeukan. Erakunde pribatua zen. Eta azterketa honen zailtasunik handiena hori da. Erakunde honek Parisen zeukan egoitza

eta dokumentazio guztia han zegoen eta gainera pribatua izanik, desagertu edo galdu egin da. Datu asko falta zaizkigu. Adibidez, zenbat kostatu zen trenbidea egiten. Aurrekontuak badauzkagu, baina datu zehatzik ez daukagu.

Aipatu izan duzue trenan nondik pasako borroka izan zela. Esaten da, Seguran ez zutela nahi izan eta Madrila joan zirela...

P.J.A.: Hori kontua da. Ez dugu behintzat inolako dokumenturik topatu. Frogarik handiena da, duela urte pare bat, Segurari buruzko artxibo guztietako hustuketa bat egin zuten. Joseba Intxaustik zuzendu zuen, eta ez zutela inongo artxibotan horren aztarnarik aurkitu.

Zatirik katramilatsuen Zegama aldekoa izan zela diozue.

P.J.A.: 'El Paso de los Pirineos' deitzen zioten. Hori ikusi genuenean, harrিতa gelditu ginen. Brinkolatik Zegamaraino doan tarteari deitzen zioten.

L.M.I.: Planoak oso zehatzak dira. Errekak, erreken adar guztiak... dena oso zehatza da. Aizkorrik bi mila metrotik gora duela, horixe

Proiektu ugari

(...) "Burgos-Bilbao-Irun trenbidearen proiektua; Baiona-Iruñearen aldekoa, Olazti-Irurtzun-Tolosa edo Alegiren aukerak. Edozein aukerabide hartzen zelarik, Norteko Trenbidetik Urola eta Goierriko herriak albora geratuko ziren. Horrek guztiak eragina izan zuen, jendea kezkatzen hasi izen eta agintariak biltzen.

Gipuzkoa osoan maila guztietako biztanleek dirua mailegatu zuten, batzuk trenbidearen onuraz jabeturik beraren eraikuntza bultzatzeagatik eta beste askok inbertsio on bat egitearren".

da ikusi dugun akats bakarra.

P.J.A.: Bi etapa izan zituen trenaren eraikuntzak.: hasi eta 1862ra arte. Enpresa pila bat hasi zen, denean sakabanatuta, puskaka-puskaka, koordinazioarik gabe eraikitzen. Sociedad General de Credito Mobiliario Español enpresa concesionariak, kontratu guztiak eten egin zituen eta beste enpresa bati eman zion. Horri eskerrak bukatu zen nolabait. Arazoak eta epaiketak egon direlako jakin dugu liburu honetako informazioa. Hiru gune oso ezberdin daude: Zumarragatik Ormaiztegiara, gatazka eta obra handiak egon zirelako informazio dezente dago; Zumarragatik Legazpira, ez dago ezeren saltsarik, eta informazio gutxi dago; informazioa biderkatzen da Zegaman.

Informazio asko aurkitu duzue Tunel Handiaren lanaren teknikaz ere bai.

L.M.I.: Tunela hustutzeko, lurra nora bota ez zeukaten. Tunel bat bukatu eta segituan hasten zen bestea. Hiru kilometroko hondakinak atera behar zituzten kanpora. 12 tximini egin zituzten gora. Eta oraindik han daude. Zuloak ez dira bromazkoak, 3 metroko diametrokoak, harriz forratutakoak... Ez zegoen errepiderik. Zaldiz, mandoz, idiz... igotzen zuten materiala.

P.J.A.: Niretzako deskubrimendua izan da putzuena. Eta jendeak bazekien. Joxe Ramon Agirre, Txanborenekoak informazio asko eman digu.

L.M.I.: Poliki-poliki egin beharreko lana izan zen gainera, pikatxoiez eta palaz.

P.J.A.: Dinamita orduantxe sortu berria zen baina ez zuten gehiegi erabili tuneletan, arriksutsua zelako. Dena palaz eta pikatxoiez egin zuten. 160 mila metro kubiko harri atera zituzten pikatxoiez eta palaz. Harri koskor-koskorra. Tximinitatik



Beasain

Trena eraiki zen garaian, Gipuzkoan, ondorengo geltokiak zeuden: Zumarraga, Beasain, Tolosa, Andoain, Hernani, Donostia eta Irun. “Ordiziari kosta egin zitzaion urteak eta urteak. Pauso handi bat bezala esaten dute, Tolosako eta Ordiziako azoketarako tren berezia jarri zirela 1875ean. Oso datu polita aurkitu dugu Madrilen: lehenengo urteetako, 1864tik 70era bitartean, estazio bakoitzean zenbat jende ibili zen. Datu hori jasota dago”, gaineratu dute

“Egunean tren bat joaten zen gora eta beste bat behera. Bapozeko lokomotoreak. 1929an, lokomotorak argindarrak betirako zokoratu zituen”, diote liburuan.

“Trenbide bakarra egon zen ia 40 urtean. Bigarren karrila 1900 inguruan jarri zen. Beasaindik Otzaurtera igotzeko, aldapa zegoelako, bi lokomotora behar ziren. Beraz, 1930 arte, Beasainen derrigor gelditu behar zuen trenak, ezin zuelako bestela trenari eraman.

Trenak Gipuzkoari orokorrean, aurrerapena ekarri bazion ere, “zerbait esatekotan esango nuke, trenbideak, batez ere, hiru-lau herriri egundoko aurrerapena ekarri diela. Gehiena Donostia da. Gainerakoak, Irun, Beasain eta Zumarraga. Trenbidearen inguruan, pixkanaka-pixkanaka etorri da imigrazioa, auzo berriak... Eta ere ez dugu guk esaten, historialariek esaten dutea”.

(Beasain eta trenari buruzko liburua datorren udazkenean argitaratuko dute Pllo Joxe Aranburuk eta Luis Mari Intzak, ‘Beasaingo Paperak’ bildumaren barruan).

atera zuten, batzuk lepaka eta beste batzuk, mekanismo bereziekin.

Eta hori bakarrik ez da; beste 12 tunel ere egin zituzten Zegaman. Planoa egin zutenek esaten dute, una “zona desértica” zela. Ez zegoen kaminorik, ez zegoen etxerik, elektrizitatearik ez zegoen, ez zegoen tabernarik, ez zegoen elizarik, ez ospitalik... lehendabiziko lana izan zen azpiegitura guzti hori sortzea. Salteak han daude, jendeari ostatu emateko eraiki zituz-

ten etxeak.

Milaka langile aritu omen ziren, kanpotik etorritakoak.

Italiako Alpeetan tunelak egiten ibilitakoak zirela esaten da. Bai, batez ere horakoak etorri ziren baina Errusiakoak ere bai. Xabier Azurmendik ‘Atzoko Zegama’ liburuan dionez, Zegaman ibilitako langile asko Suezeko kanala egitera joan ziren.

6 mila langile ibili zirela esaten du Juan Carlos Mora historialariak. Guk ez dugu

datu zehatzik atera. Askok izan ziren, hori bai. Plano pilo bat egin zituzten, aldatzeko egin behar izan zirelako. 6 urtetan trenbidea egin zela esatea asko da, baina inauguratu hala egin zen. Beste bost urtean obrak jarraitu zuten bai Zegaman eta bai Zumarragan. Hildakoak milaka izan ziren, istripuz edo gaixotasunez. Kanpotik etorri eta bertakoekin ezkondu, haurrak izan... asko dira, asko aurkitu ditugu. Sei mila asko esatea izango da.

Planoak egin zituzten ingeniariak kanpokoak ziren. Liburuan azaltzen diren enpresak-eta, gehienetsuen, frantziarrak ziren. Hori azpimarratzekoa. Hemen itxura denez, ez zegoen horrelako enpresarik edo lan batzuetarako prestatuta.

Trikitixaren jatorria ere Piamontetik etorritako langileei zor zaiela esaten da.

P.J.A. : Guk Busca familia-rekin lotu dugu. Busca Isu-

siren birraitona, Juan Bautista Busca Preto, Piamonten jaio eta Ezkio-Itsasora etorri zen, hango baserriko neska batekin maitemindu eta Zegamara joan ziren bizitzera. Ezkondu eta hiru seme-alaba izan zituzten Zegaman. Txanboreneko arduradun egon omen zen Busca. Tabernaria zen eta noski, trikitixa jotzen zuean. Zegamako lanak bukatuta, Zumarragara joan zen eta beste zazpi seme-

alaba izan zituzten eta bere biografia egin dugu. Alvaro Busca aurkitu dugu, Busca Preto horren biloba, eta horrek web gunean, berealdiko informazioa dauka. Busca honen soinua mantentzen omen dute Italian.

1864ko abuztuaren 15ean inauguratu zen tren. Inaugurazioaz ere datuak bildu dituzue.

P.J.A.: Madrildik Olaztira eta Irundik Beasaina egina zegoen baina beste zatia

falta zen. Ormaiztegiko zurbia ere falta zen. Ze eragozpenak izan ziren garbi azaltzen da liburuan. Proiektua aldatu egin zen.

17 ordu pasatu zituen trenak. Bezperan, arratsaldeko 5etan ateratzen zen Madrildik. Erregea eta bere sekito guztia, politikoak... Gustavo Adolfo Bécquer poeta ere etorri zen eta oso artikulua famatua idatzi zuen. Trenbidea 1864ko abuztuaren 15ean inaugura-



Hamabigarren putzua


Bosgarren putzua

Seigarren putzua

“Tunela husteko 12 zulo egin zituzten, batzuk karratuak eta beste batzuk zilindrikoak.

Grafiko honetan azaltzen da zulo bakoitzak zeukan sakonera. Zuloak egiteko 14.500 m³ lur eta harri ateratzen eta 14.000 m² harri erabili ziren zuloak forratzen.

Tunela husteko, berriz, 160.000 m³ lur eta harri ateratzen eta 60.000 m² harri behar izan ziren tunela forratzen”.



Oazurtza tunela

(...) “Oazurtza tunelak, bi sarrerez gainera, baditu beste hamabi putzu izeneko zulo bertikal. Bosgarrena da sakonena, 264 metro baititu. Bosgarren putzua Zegaman dago, 233 metroko sakonera eta hiru metroko diametroa du eta seigarren putzua haren antzekoa Legazpiko uda-eremuan kokaturik dago. Putzu haietatik bost bapozeko makinaren bidez ateratzen zituzten lur eta harri hondakinak, pala eta pikaxoeiz zulatutako harri koskorak. Makinek 30 zaldiko indarra omen zuten. Zuloak egiteko, 14.500 m³ lur eta harri ateratzen eta 14.000 m² harri erabili ziren zuloak forratzen. Tunela husteko, berriz, 160.000 m³ lur eta harri ateratzen eta 60.000 m² harri behar izan ziren tunela

forratzen.

Tunelaren eraikuntza kontratista ezberdinek aldi berean hasi zuten, batzuk zeharka eta beste batzuk goitik behera zulatuz. Gaur oraindik zuloetatik ateratako hondakinak ikus daitezke bere ondoetan, tona askoko hondakin pilak, hain zuzen.

Putzu eta tunelaren pareta estaltzeko harri-xaflak erabili zituzten. Oazurtza tunelaren gainean eta ondoan harrobi andana dago sasi eta arbolez estalita, adibidetzat Arranoaitzekoaren argazkiak eman dira eranskinetan. Tunelari harrizko estaldura kapa emateko botilaren tankera eman eta karez lotu zituzten harri xaflak”.

tu zen. Donostiako festak ziren. Handik lau edo bost egunera, 'El Contemporaneo' aldizkarian, Madrilen, artikulua argitaratu zuen. 15 bat orrialde zituen. Berak kontatzen du Madrildik nola atera zen eta bere esperientzia guztiak. Inaugurazioa zen Olaztitik Donostiara. Aurretik ondo prestatuta zegoen, trena noiz pasatuko zen, baserriak eta etxeak nola apaindu behar ziren, segurtasuna... Sabotajeren batzuk egon baitziren.

Xabierren liburura joanez, bertan biltzen duenez, jendeak ez zuen sinisten trenbide hori gauza sanaoa zenik. Aitona bat mendira joan zen eta trena pasatzen ikusi zuenean, mareatu egin omen zen. Trena ez zela parte onekoa esanez joan omen ziren.

Beste batzuk ere ez zuten sinisten trena idirik gabe ibiliko zenik.

Hainbeste informazio jasoz duzue, hainbeste datu... zerekin gelditu zarete? Zerk harritu zaituzte gehiena?

P.J.A.: Hemen norbaitek idatzi du, faraoien obra izan zela Tunel Handiarena eta hala da.

L.M.I.: Hori nabarmendu nahi izan dugu: obra guztiek lau urteko epea zuten; Tunel Handiak, 7 urte. Hala ere gutxi izan zen. Tunel Handi hau egitea, faraoien obra izan zen.

“Gure azterketa hau, ez lotu Abiadura Handiko Trenarekin, mesedez”

Gaur egun, bada beste tren proiektu bat, Abiadura Handiko Trenarena. Pello Joxe Aranburuk eta Luis Mari Intzak, garbi esan dute beraien azterketak ez daukala inolako zerikusirik Abiadura Handiko Trenarekin. “Zuek ez dakit Abiadura Handiko Trenaren aldekoak izango zaretan. Badirudi liburu hauekin Abiadura Handiko Trenaren aldekoak gara. Garai hartan, Diputazioan, Gobernuan, prentsan... urteetan eztabaidatu zen eta erabaki gabe. Gaurko egunean, asfal-di erabakita dago eta egingo da eta eztabaidatzeko aukerarik gabe. Erabat diferentea izan zen. Mundu guztia zegoen trenaren alde, beste trenik ez dagoelako. Baina gaurko egunean, beste aukera batzuk badaude. Abiadura Handiko Tre-na gure azterketarekin aprobetxatzea... Erabat diferente planteatu zen eta aukerak ere diferenteak zeuden. Abiadura Handiko Trenarekin, mesedez, ez lotu gure azterketa. Kontestutik ateratzea da. Eztabaidatu, pentsatu... egin zen. Hau gehiago lotu daiteke tren sozialesekin. Herriak jarri zuen dirua, Eliza ere diru biltzen aritu zen, Kubatik hango euskaldunek, 5 milioi erreal bidali zituzten. Hemengo diru publikorik ez zen inbertitu. Dena kanpokoia izan zen”.



Badaude. Abiadura Handiko Tre-na gure azterketarekin aprobetxatzea... Erabat diferente planteatu zen eta aukerak ere diferenteak zeuden. Abiadura Handiko Trenarekin, mesedez, ez lotu gure azterketa. Kontestutik ateratzea da. Eztabaidatu, pentsatu... egin zen. Hau gehiago lotu daiteke tren sozialesekin. Herriak jarri zuen dirua, Eliza ere diru biltzen aritu zen, Kubatik hango euskaldunek, 5 milioi erreal bidali zituzten. Hemengo diru publikorik ez zen inbertitu. Dena kanpokoia izan zen”.






ondoeta

**GARAJE INDUSTRIA ETA FAMILIARTEKO
ETXEBIZITZETARAKO ATE METALIKOETAN
ESPEZIALDUA, ESKUZKOAK ETA AUTOMATIKOAK**

E-mail: ondoeta@ondoeta.com www.ondoeta.com

© 943 88 31 02 - 943 88 74 51 Faxes: 943 88 08 72

201 Industrialdea, 18. pabilioia OLABERRIA




SILVIA MIRASCASAYAS
ODONTÓLOGA
KOL. Zka: 649 RPS: 223/07



TEL./FAX: 943 88 92 87
SAN INAZIO KALEA, 2
20200 BEASAIN - (GIPUZKOA)

Adimen-urrikoen Eguneko Zentroan barneratuz



Adimen-urritasuna duten pertsoekin lan egiten dute Ordiziako Gojenehe Fundazioaren Eguneko Zentroan. “Beren trebetasun, amets eta helburu pertsonalengan sinisten dugu. Eta batez ere, beren kabuz erabakiak hartzeko eta beren bizitzaz gozatzeko eskubi-

deak duten pertsonak direla sinisten dugu”, adierazi du Eguneko Zentroaren zuzendaria den Asun Jauregik. Aurretik Itsasondan izan zuten egoitza. Iazko uztailaren 6tik dena den, Ordizian daude, egoitza berrian, Urdaneta kaleko 76. zenbakian.



Errehabilitazioa

Masaje terapeutikoa

Kirol masajeak

Lunbalgiak eta ziatalgiak

Drenaje linfatikoa

Kinesiologia

Naiara Gómez Larrea
Kol.zkia.: 1466

Orduetgia:
astelehentik
ostiralera
9:00 - 13:00
15:00 - 20:00

Andraitz kalea, 2 esk. ZEGAMA Tel.: 943 80 15 32

PSIKOLOGI KLINIKOA



Jose Ramon Pato Prieto
Psikologian lizentziatua
Elkargokide zenbakia: E-2644
RPS: 42001

AURRE ZITA ☎ 943 887 221 ☎ 610 020 041
JM Arana, 1 - 2. esk. esk. BEASAIN

Helduen,
umeen,
bikoteen eta
sexologi
tratamenduak

ARANDIA GARAJEA
Autoen konponketa
N-1, z/g Iurre Auzoa OLABERRIA ☎ 943 88 09 47

Iazko uztailaren 6an inauratu zuten Ordiziako Goyeneche Fundazioaren adimen-urrikoen Eguneko zentroa. Aurretik, Itsasondon zuten egoitza. 29 erabiltzaile daude eta lantaldea sei pertsonen osatzen dute. Asun Jauregi, Ordiziako adimen-urrikoen eguneko zentroko zuzendaria da eta berak eman digu adimen-urriko pertsonekin egiten duten lanaren berri.

Goyeneche Fundazioak kudeatzen du Eguneko Zentroa. "Gureak barruan, eguneko zentroak osatzen dituen enpresa da. 1997an ireki zen lehenengo zentroa. Gipuzkoan 8 zentro daude: 2 Donostian, Irunen, Azpeitin, Arrasaten, Errenterian eta Ordizian. Gureak-eko tailerrak bezala, eskualde bakoitzean zentro bana izatea da helburua. Hastapenetan gaude eta ez da erraza momentuan hori betetzea. Beraz, Urola Garaiko eta Tolosaldeko erabiltzaileak ere badira Ordizian. 2004an Legazpin sortu zen baina leku aldetik txikia da eta erabiltzaile aldetik ere

bai. Otsailean Ordiziara etorri ziren. Tolosan ere antzeko zentro bat izateko zain gaude. Etorkizunean, suposatzen da, bakoitza bere eskualdean egongo dela", zehaztu du Asun Jauregik.

29 adimen-urriko lagunek erabiltzen dute Eguneko Zentroa. Goiz eta arratsalde elkartzan dira bertan, ekintza ezberdinak eginez. "Erabiltzaile gehienak, Gureak-eko lantegietan lan egin ondoren, arrazoi ezberdinengatik, hona etorri direnak", azpimarratu du. Helburu zehatzak dituzten ekintzak egiten dituzte bertan. "Gure lana kolektibo honi behar duen laguntza ematea da, beren eskubide eta betebeharrak ezagutu eta beren buruaren jabe bihurtu daitezzen. Bizitza normal batez gozatzeko aukera izan behar dute, beren gaitasun guztiak landuz eta era berean, dituzten zailtasunei aurre eginez. Pertsonaren garapenean lan egin; eta herrian, eskualdean, komunitatean integratzea. Ordiziara etorri garenetik, indartu egin da atal hori. Ordiziara etorri bezain laster el-karrizketak egin genituen alkatearekin, Ongizate sailko zinegotzi eta teknikariek...". Ordiziako azokan adibidez, postua jarriko dute hilean behin, Bidezko Merkataritzako produktuak salduz.

ziara etorri bezain laster el-karrizketak egin genituen alkatearekin, Ongizate sailko zinegotzi eta teknikariek...". Ordiziako azokan adibidez, postua jarriko dute hilean behin, Bidezko Merkataritzako produktuak salduz.

Ekintzak eta lanak

Goizeko 9,30ak aldera iristen dira autobusetan eta taxixean erabiltzaile guztiak. Goizean zehar, lau bilera egiten dituzte, bakoitzaren interesen arabera banatuak. "Bilera hauen helburua komunikazioa lantzea izaten da eta bakoitzaren zaletasunaren arabera, lau taldetan banatzen dira. Familia harremanak; aisialdia, oportunitate lekuak; egunkariak, aldizkariak, ipuinak... irakurtzea; irudiaren bilera, youtube...".

Asteko bi goizetan, Beasaingo kiroldegira joaten dira soinketa eta igeriketa egitera. Asteazkenetan, Ordiziako azokara joaten dira goiz pasa. Uda partean, irteera asko egiten dituzte. Joan zen astean adibidez, San

Ferminetara eta Urbasara joatekoak ziren.


"Egiten ditugun gauzak, ahalik eta funtzionalenak izaten saiatzen gara. Beti dauzkagu erosketak egiteko, Kutzara ere joan behar izaten da... Makillaje saioa...".

Bi lan ere egiten dituzte. "Erregeetako Opilean sartzen diren babak, plastikoen biltzen ditugu Donostiako enpresa baterako. Beste lan bat, lau piezen montajea, sukaldeetako mando batean jartzen den pieza", azaldu du.

Diruarekin zer egiten duten galdetuta, hona erantzuna: "bileretan erabakitzen dute zertarako erabili. Bazkariak, irteera bereziak... gehienetan bazkarietan gastatzen dugu".

Eguneroko otorduak, Eguneko Zentroan bertan egiten dituzte. Goizean hamaiketaxoa eta bazkaria, Gureak-en Sutondoan katering enpresatik ekarritakoa izaten dute.

Arratsaldeetan, sukaldaritza tailerra, eskulanak, ordenadorea, musikarekin lo-



Lazkaoko Koldok eta Villabonako Rosariok txokoz txoko erakutsi digute Ordiziako Eguneko Zentroa. Rosario, autobusean etortzen da; Koldo, taxian. Koldo ez da San Ferminetara joango, amarekin Saloura baitoa oportetara 15 egunerako.

Txokoz txoko

Uztailak 4, goizeko hamarrak laurden gutxiago da. Bileran daude. Planak egiten ari dira. Batzuk San Ferminetara joatekoak ziren, jantzi zuriak eta zapi gorria jantzita. Eta beste batzuk, Urbasara. Asun Jauregi zuzendariarekin hizketan bukatzerako, bukatu dute bilera. Bertan erabaki dute, eguneko zentro guri erakustearen ardura Lazkaoko Koldok eta Villabonako Rosariok izango dutela.

Komunak, ordenadorearen txokoa, eskulanetarako lekua, bilera gela... eta hantxe aurkitu dugu Legazpiko Mila, Erregeetako Opilarentzako babak plastikoen biltzen. Donostiako enpresa batentzat lan egiten dute Ordizian.

Sukalderaino eta jangelaraino bideratu gaituzte jarraian. Hamaiketakoak eginez harropatu ditugu gehienak: ogi xigortua edo fruta janez.

Telebista ikusteko egongela, musika entzutekoa... erakusle ederrak izan ditugu benetan. Azkazalak margotuta nola dituen erakutsi digu Rosariok.



Ordiziako Eguneko Zentroaren zuzendaria den Asun Jauregi.

Integrazioa helburu

Adimen-urriko pertsonak gizartean integratzea da helburua. Horrekin batera, gizarteari pertsonengana hurbiltzeko bideak irekitzea. Bi helburu horiek kontuan hartuta, bi ekimen ari dira burutzen eta burutuko dira. Jarraian dituzue bi esperientziak:

Bidezko merkataritzako denda

Batetik, bidezko merkataritza, Herriak Elkarlanean elkarteariki elkarlanean. “Adimen urritasuna duten pertsonen bolontario papera herrian bultzatu nahi izan dugu. Pauso bat da. Garai batean etxean zeuden, etxetik ateratzea eta kalean beraien presentzia, pauso bat izan zen. Bigarren pausoa izan da, presentziaz gain, ikustea beraiek ere badutela paper bat. Lanaren bidez lortu da hori neurri batean. Gizartean lanarekin aportatu ezin dutenek, beharbada beste modu batera egin daiteke eta horregatik ari gara boluntarioritza bultzatzen, laguntzarekin. Momentu honetan, asteartero, arratsaldeko 3,30etatik 5etara egoitza irekitzen dugu bidezko merkataritzako produktuak saltzeko. Eskaera bat egin daukagu udaletxean, irailetik aurrera, hilean behin, azokan postu bat jarri eta produktuak saltzeko. Behar dituzten trebeziak lantzen ditugu zentroan. Agurra, kalkugailua erabili... Hala ere ez gara ahalmenetan hainbeste zentratzen. Horretan bakarrik zentratuko bagina, pertsona askok ezin izango bailukete parte hartu. Neurri batean bai, lantzen dugu, ahalmena indartzeko, baina guk esaten dugu, gu bezalaxe, daukagun ahalmenarekin bizi gara eta onartzen gaituzte edo onartzen ditugu pertsonak. Garrantzia handiagoa ematen diogu pertsonari aukerak emateari, eta laguntzak emateari, daukaten ahalmenarekin. Ahalmen hori handiagoa izan badaiteke gure laguntzarekin, hobe, baina bestela, daukagunarekin bizi behar dugu”, zehaztu du Asun Jauregi.

Bizitzako esperientzien kontakizuna

Bigarren proiektua irailan jarriko dute martxan. “Hau ere komunitatearekin lotua. Goiekin parte hartzen dugu eta zenbait ardatz garrantzitsu daude: emakumea, adineko pertsonak... Herrian edo eskualdean badaude pertsonak, aportazioak egin ditzaketanak, gurekin dauden pertsonak bezala. Zentroa irekiko dugu, beraien esperientziak kontatzeko. Oso esperientzia ezberdinak izan daitezke. Lanarekin lotua, hobbyarekin, bizitzarekin lotua... Zer lortu nahi dugu? Esperientzia horiek konpartitu, gurekin dauden pertsonak ezagutu egingo dituzte hainbat gauza. Hemengo pertsona gehienek ez dakite irakurtzen eta idazten. Iturri bat da beraiengatik, ezagutzeko, komunikazioa lantzeko eta beraiengan ere interesa pizteko. Eta pentsatzen dugu kanpoko pertsonak ere, pertsona hauek ezagutzeko eta gertutik ezagutu ahal izateko aukera izango dutela”, azpimarratu du.

tutako ekintzak, irteerak... “Saltzeko eskulanak egiten dituzte eta urtean bitan, Gureak-ek antolatzen dituen bi azoketan salgai jartzen dituzte. Irailean gure asmoa da, azoka berezian parte hartzea”, zehaztu du Jauregi.

Astelehen arratsaldeetan adibidez,, batzarra egiten dute. “Goizetako bilerak komunikazio bilerak diren bezala, astelehen arratsaldeetako, bilera informatiboa izaten da, aste osoa antolatzeko, erabakiak hartzeko.... Aktibitate guztiak ere beraiek aukeratzen dituzte”.

Norbanako planak

Ekintza orokorrak egiteaz gain, plan indibidualak ere egiten dituzte. “Pertsona bakoitza paregabea da, bakarra. Hortaz, gure lehen zeregina pertsonak ezagutzea da eta beren beharrak, motibazioak eta desioak zeintzuk diren jakin. Ondoren, dagokion laguntza-plan indibiduala garatzen dugu. Honi esker, pertsona bakoitzaren adinean, izaeran eta lehenetsunetan oinarritutako jarduerak egin ahal izango ditugu, helburu zehatzarekin”, azpimarratu du Jauregi.

Lehen zeregina pertsonak

ezagutzea da eta beren beharrak, motibazioak eta desioak zeintzuk diren jakin.

Ondoren, laguntza-plan indibiduala garatzen dugu.



“Elkarlanaren aldekoak gara. Pertsonak, familiek, profesionalek eta gizarteak orokorrean, batera lan egin behar dugu, elkarrekin aurrera egin, Gipuzkoako adimen-urritasuna duten pertsonak beren bizitzaz gozatzeko aukera izan dezaten. Iaz plan estrategikoa egin genuen eta saiatu gara profesionalez gain, erabiltzailei eta familiei parte hartzeko aukera ematen. Familia batzordea eta erabiltzaile batzordea sortu dira. Asteaz zehar, bilera irekia egiten dugu, eta bertan gai edo kezka ezberdinak ateratzen dira”, gaineratu du.

Zaitasunak

Guztien nahiak ez betetzea horixe da Asun Jauregik aipatu duenez, daukaten zaitasunik handiena. “Zailetasun ezberdinak dituzte guztiak, gu bezalaxe. 29 pertsona hemen egotea balitz helburua, horretan ez legoke arazorik. Lekua badago. Baina detailera iritsi nahi badugu zaila hori da. Bakoitzak nahi duena bete ahal izatea da zaitasunik handiena. Azkenean pertsona asko dira bakoitzarengana iristeko. Guri gertatzen zaigun bezalaxe, baliabide

muga ere izaten da askotan. Dena den, esaten den guztia jaso egiten dugu. Adibidez, batek esan zigun, Erromara joan nahi zuela. Jasota dago, nahiz eta momentu honetan gure esku ez dagoen. Beste batek esan zigun, otorduan arrautza frijituak jartzea nahi zuela. Kateringatik, arrautza frijituak ezin dira jarri baina nahi hori jaso eta beharbada egunen batean hamaiketako egingo dugu arrautza frijituarekin. Garrantzitsua jasotzea da eta saiatu bete ahal izaten. Askotan koordinazioa ere garrantzitsua izaten da, pertsonen nahiak bideratzeko”.

Mitoak hautsi

Beste zaitasun mota batetaz ere hitz egin du Asun Jauregik. “Ez dira umeak bezala, denak ez dira maitekorak. Ordenadorean edo kalkulagailuan ibiltzeko ez dakit zein adinetako umearen gaitasuna izango duten. Baina sexualitatean eta beste gauza batzutan ez da ume bat. Zenbait arlotan bai. Horiek mitoak dira. Eta ondorio garrantzitsuak dituzten mitoak dira. Ukatu egiten zaie adibidez, daukaten sexualitatea eskubide bezala. Sexualitate arloa

lantzen dugu, garrantzitsua da eta. Batzuk menopausian daude adibidez. Batzuk badakite edo ez dakite ezer ez horri buruz. Gure lana da, inguruan, beraiekin harremanetan dauden pertsonekin ere hori lantzea”, zehaztu du.

Adimen-urriko guztiak maitekorak direnaren mitoa ere hor dago. “Denak ez dira kariñosoak, gu bezalaxe batzuk umore txarrekoak dira... Baina batzuk ohitu egin dira beharbada modu batean erlazionatzen”.

Beraz, mitoak hausteko, adimen-urriko pertsonengan gerturatzea proposatzen du Jauregik. “Inoiz ez bada aukerarik eduki adimen-urriko pertsona bat ezagutzeko, dauden mitoekin funtzionatzen dugu eta pixkanaka ikasten joan behar gara. Eta horretarako, onena, kontaktua da, harremanak edukitzea. Barrera sozial horiek, fisikoak baino askoz ere zailagoak dira apurtzen. Espaloi bati pusketa bat kenduko zaio, nahiz eta denbora bat pasa hori egiten. Baina buruan dauzkagun mito guzti horiek apurtzea, gehiago kostatzen da”, gaineratu du Asun Jauregik.

Bizitza egunean zehar

- ✓ Janaria prestatu
- ✓ Musikaz gozatu
- ✓ Sasoian egon
- ✓ Irakurri
- ✓ Igerilekura joan
- ✓ Garraio bideak ezagutu
- ✓ Eskubideak defendatu
- ✓ Parkera joan
- ✓ Erabaki
- ✓ Herriko festak ezagutu
- ✓ Kultur etxean goiz bat
- ✓ Antzerkia
- ✓ Nora joan nahi duzu?
- ✓ Komunikatu
- ✓ Erosketak egin
- ✓ Egunkaria irakurri
- ✓ Trena hartu
- ✓ Proposamenak egin
- ✓ Lagunak egin
- ✓ Etxeko lanak egin
- ✓ Aisialdiaz gozatu
- ✓ Hitz egin
- ✓ Mendira joan
- ✓ Zaintzen ikasi
- ✓ Lagunekin egon
- ✓ Espresio tailerra
- ✓ Aukeratu
- ✓ Aisia eta dibertsioa
- ✓ Autobusa hartu
- ✓ Errespetua
- ✓ Gure etxea zaindu
- ✓ Naturarekin harremana
- ✓ Pintxoak jan
- ✓ Zerk kezkatzen zaitu.
- ✓ Politia jarri zaitez
- ✓ Arazoak konpondu
- ✓ Kontaidazu zer nahi duzun
- ✓ Landareak zaindu
- ✓ Elektrotresnak erabili
- ✓ Jaialdietara joan
- ✓ Gure osasuna zaindu
- ✓ Motrizitatea
- ✓ Ordenagailua erabili
- ✓ Komunikazioa hobetu
- ✓ Mugikorretik hitz egin
- ✓ Musika tresna bat jotzen ikasi
- ✓ Zaborra birziklatu
- ✓ Futbol eguna
- ✓ Sormena

Urdaneta 500 I. Atletismo Topaketa

*Uztailaren 19an izango da Altamirako pistan,
Txindoki Atletismo Taldeak antolatuta*

Idea Ordiziako Urdaneta ikastetxetik sortu zen. Urdanetaren 500. urtemuga dela eta atletismo pista berria dutela aitzaki harturik, hiru talderen arteko topaketak antolatzea. Txindoki Ordiziako talde bezala, Goierri Garaia eta Bizkaiako Urdaneta (Loiukoa).

Atletismo pista berritua izatean, hauei bizia emateko beharra ikusi dute Txindokikoek eta horregatik hasi dira proba hau antolatzeko. Aire libreko pista lehiaketa apirilean hasten da eta maiatza eta ekainean izaten dira proba gehienak. Uztailean txapelketa handiak bakarrik izaten dira, eta maila oneneko atletek jarraitzen badute ere, gehie-

nak uzten joaten dira. Aste-oro probaren bat egiten da eta gainera orain arte Gipuzkoako federazioak 'photo finish' tresna bakarra duenez ezinezkoa izan dute uztailean arte ezer antolatzeko. Zailtasun hauen ondorioz data atzeratu denez eta orain atleta gehienak entrenatzeari utzita daudenez, hiru talderen arteko lehiaketa antolatzeko ezinezkoa

izan da. Beraz topaketa bat egitea izan da erabakia, Espainiako txapelketetan parte hartu ahal izateko marka saiakerak egiteko.

Atletismo pista berria egin zenean oso material onarekin egin zen, gogorra da eta gehiegizko erabilerririk ez duenez oso egokia da batez ere abiadurako probetan marka onak egiteko. Proba luzeetan denbora

Ordiziako Altamira estadiu-meko atletismo pista berria oso egokia da marka onak egiteko, batez ere abiadura probetan. Estreinatuta berri den pista horri ahal den eta zuku gehiena ateratzeko asmoarekin antolatu dute Txindoki Atletismo Taldekoek Urdaneta 500 I. Atletismo Topaketa. Uztailaren 19an arratsaldeko 6etatik 8etara jokatu diren 15 probetan, IAAF taularen arabera puntu gehiena lortzen dutenak izango dira irabazleak.

onak egiteko, ordea, gogor xamarra da. Horren lekuko dira ekainaren 18an egindako lehen probetako markak. "Adibidez, Eñaut Gereñuk 2006tik 200 metrotan 22,07ko denbora zuen eta ekainaren 18an 21,91 egin zuen. Aurten Gipuzkoan egin diren markarik onenak Ordizian egin dira eta hori zerbaitengaitik izango da. Eguraldi aldetik oso egun egokia izan zela ere kontutan hartu behar da", azaldu du Angel Perez Txindoki taldekoak.

Urdaneta 500 Atletismo Topaketa izango da probaren izena. "Udalak Urdanetaren 500. urtemugaren inguruko ekitaldietarako diru kopuru bat duenez laguntza

Urtero data berdinean topaketa antolatzeko asmoa dute Txindoki Atletismo Taldekoek.

ZAHARRA • BERRI

IGELTSERITZA ETA ERAIKUNTZA

A. Almeida
943 180 372
651 700 439
aiakoerrota@terra.es
ATAUN



Eraikuntzak
Gremioen koordinaketa
Erreforma orokorrak
Teilatuak



Iñasti
Hortz Klinika
ESTIBALIZ JUAREZ ALDANONDO
602 ZEHU. KOLEGIATUA

RADIOGRAFI PANORAMIKO ETA ZEFALOMETRIAK
ODONTOLOGIA OROKORRA: HAUR ETA HELDUAK

JOAN ITURRALDE, 3 BEASAIN
☎ 943 88 46 28

izan dugu eta laguntza guzti hori sarietan jarri dugu, ez dira beste mundukoak baino aurtengoz horrela behar du”, dio Angelek. Datoren urterako denborarekin hartu eta sarietarako babesleak eta diru gehiago lortzen saiatuko dira.

Datari eutsi nahi diote

Jaietako haurren asteburuko data, gorde nahi dute hemendik aurrera ere urtero atletismo topaketa egiteko. Hori garbi dute ordiziarrek: “Beste lehiaketaren batekin batera suertatzen dela? Guk data jarria dugu eta horri eutsiko diogu”. Horrez gain, lehiaketa ofizialen bat antolatzeko aukera badute ez diote muzin egingo, pistak horretarako aukera ematen baitu.

Gipuzkoan Donostikoaz gain, Tolosan (nahiko zaharkitua), Elgoibar, Eibar eta inauguratu berri den Arrasatekoa daude. “Gipuzkoako federazioak atletismo proba gehienak Anoetan antolatzen ditu eta Ordiziako pista berriari bizia eman nahi diogu. Gainera zerbait antolatzeko gogo handia dugu, pistak abiaturako probetan denbora onak egiteko ezaugarri bikainak dituelako”, dio Angel Perezek.

Aurreko pista 1983an inauguratu zen. Garai hartan jarri zuten tartana ona zen, baina 6-8 urtetan erabiltzearen ondorioz honda-



tu egin zen. “Orduan pistan edozein sar zitekeen eta jende asko ibiltzen zenez oso hondatua zegoen, partxeak jarrita”, gogoratu du Angelek. Oraingo pista Majori kirolgunearen barruan dago eta bertan ibiltzeko bazkidea izan behar da.

Aurrekariak

“1985-86an hasi ginen Aris-train saria antolatzen. Irailean egiten zen eta Espainia mailako onentxona ekartzen genuen. Baldintza bakarra zen parte hartzeagatik ez zela dirurik ordaintzen, bidaia, egonaldia eta bukareraren sagardotegian afaria

Uztailaren 19an Altamiran 15 proba

Atletismo topaketa 18:00etan hasi eta zortzirak aldera arte iraungo du. 8 proba izango dira gizonezkoentzat eta 7 emakumezkoentzat, lasterketak, jauziak eta pisu jaurtiketa; Pistaren ezaugarriengatik ezin dira beste jaurtiketak (mailua, xabalina eta diskoa) egin.

Proba bakoitzeko 3 lehen postuentzat dominak izango dira. Horrez gain, gizonezkoentzat eta emakumezkoentzat, IAAF 2008 taularen arabera puntu gehien lortzen duenarentzat 150 euro, bigarrenarentzat 100 euro eta hirugarrenarentzat 50 euro izango dira, trofeoz gain. IAAFeko puntuak proba bakoitzean markarekin horretarako prestatuta dauden taula batzuen arabera ematen dira.

Gizonezkoak	Emakumezkoak
Pertika jauzia	Pertika jauzia
Pisu jaurtiketa	Pisu jaurtiketa
Jauzi hirukoitza	Luzera jauzia
100 m.	100 m.
200 m.	200 m.
1.500m.	800m.
5.000m.	5.000m.
110m. hesiak	

“Eguneroko ogia, ogi bereziak eta pastel ezin hobekak”



K. Nagusia 35 BEASAIN

☎ 943 88 77 58

Elosegi, 14 LAZKAO

☎ 943 88 72 79

Sta. Maria, 19 ORDIZIA

☎ 943 16 00 44




mazda

☎ 943 889 296

Faxa: 943 887 952

Bikar, S. A.

N-1 errep. 419 Kma
BEASAIN





ordaintzen zitzaien. Espainiako altuera errekorra egin zen eta antolatu genuen 5 edo 6 urtetan oso parteharitze ona izan genuen. Ondoren atletismoan orokorrean kirolari kopurua asko jaitsi zen”, gogoratu du Angel Perezek.

Harrobia lantzen

Atletismo federatua jaitsi den moduan herrikoia asko igo da. Hori dela eta Jose-txo Imaz hil zenean bere omenez atletismo lehiaketa antolatu nahi zuten Ordi-zian, baina Txindokikoek garbi zuten lasterketa herrikoia antolatuz gero askoz

ere harrera hobea izango zuela eta horrela egin zuten.

Hala ere ez dute pistako probak alde batera uzteko inongo asmorik eta irailetik aurrera eskolarteko lehiaketak ere egingo dituzte. Angel Perezek garbi dauka, “Goierriko ikastetxeak dira Gipuzkoan atletismoa gehien praktikatzen dutenak, zoragarria da irakasleak egiten ari diren lana. Orain arte pistarik ez genuenez ezin zen ezer egin, baina, orain hasiko gara lehiaketak antolatzen. Azken finean hori da gure taldearen harrobia”.

Hiru harribitxi

Angel Perezek atletismoa egiten zuen garaian Espainiako txapelketetara taldeko 7-8 lagun joaten ziren, bartzuk dominak lortu, besteak finaletan sartu... Orain 3 joaten dira, hori da diferentzia. “1985 edo 1986 inguruan taldean 100 fitxa inguru genituen eta orain 60 izango ditugu beterranoak, laguntzaileak eta dena kontutan harturik. Hori bai, maila oneko atletak ditugu. Adibidez: Odei Lopez, Eñaut Gereñu eta Alazne Furundarena. Gero Kirolgirekin dugun akordioaren arabera Real Sociedadera edo Atletiko San Sebastianera joango dira, taldearen eta kirolarien onerako. Eñaut datorren urtean eta Odei bi urte barru Realera joango dira, aurretik Adur Ugartemendia eta Gorka Satrustegi joan ziren bezala. Alazne Furundarena, berriz, hiru urte barru Atletiko SS-ra joango da, beste talderen bat etorri eta fitxatzen ez badu behintzat”.



Garbiketa
Zerbitzu
Integrala

Enpresen mantentzea

Tel./Faxa: 943 188 194 Mug.: 696 999 117
Kale Nagusia, 25, 1. esk. IDIAZABAL

Zeure etxea dekoratzeko biderik laburrena

ibai ondo
barne diseinua
dekorazioa

Garai berrietarako
ideia berriak

Katea 5, Antzizar auzoa
Tel.: 943 16 40 40
BEASAIN

Gabiria

Andre Mari jaiak

Abuztuak 10, igandea: San Lorentzo eguna:

11:00etan: Meza nagusia.

Ondoren: Hamaiketakoa.

14:00etan: San Lorentzo eguneko bazkaria.

16:00etan: Mus txapelketa.

21:00etan: Auzo afaria. Afal ondoren bertsolariak. Auzoko helduenari Korta jatetxeak saria eskainiko dio.

Gaua alaitzeko, dantzaldia izango da goizaldera arte.

Abuztuak 13, asteazkena:

17:00etan: Herriko mutikoen arteko pilota partiduak; sasi pilotari finala; kadeteen arteko pilota partiduak: David Perez de Albeniz- Eñaut Asurabarrena eta Josu Munduate- Mikel Arratibel.

Ondoren 'Katain' eta 'Euzkitza' herriko trikitilarietako triki-bertsu poteoa.

Abuztuak 14, osteguna: Andre Mari bezpera:

Goiz eta arratsalde: Biribilketa baserriz baserri herriko txistularietan.

17:00etan: Suziri eta kanpai jotzea.

Jarraian Gabiriako eta Ezkio- Itsasoko gaztetxoaren arteko futbol partidua.

18:30ean: Herriko gazteen arteko herri-kirol saioa.

22:00etan: Bertsolari jaialdia parrokiako antzokian: Aitor Mendiluze, Maialen Lujanbio, Aitor Sarriegi, Iker Zubeldia, Uxue Alberdi eta Julio Soto.

Ondoren 'Beste bat' musika taldearekin dantzaldia.

Abuztuak 15, ostirala: Andre Mari eguna:

11:00etan: Meza nagusia.

12:00etan: XVII. Ormaiztegitik Gabiriarako igoera txirinduz herritarrentzat.

18:00etan: Goruntz dantza taldeko nagusien saioa.

Ondoren: 'V. Patata tortilla lehiaketa'

19:00etan: Bola eta toka lehiaketa (Izen ematea 20:00etan itxiko da).

Arratsaldea Trikizio taldeak alaituko du.

00:00etan: 'May Tibs' Katalan musikarien kontzertua.

Ondoren Trikizio taldearekin dantzaldia.

13:30ean: Mozorro desfilea eta sari banaketa.

5:00etan: Txokolate jana Osinalde elkartearen.

Abuztuak 16, larunbata: San Roke eguna:

11:00etan: Meza nagusia.

Ondoren: Herriko Goruntz dantza taldeko txikienek eskainitako saioa.

16:30ean: Txikienezako puzgarri eta parke erraldoia.

17:30ean: Ume jolasak eta mozorro dantza.

19:00etan: Bola eta toka lehiaketek jarraituko dute, (izen ematea 20:00etan itxiko da).

19:30ean: Sagardo eta txistor dastatzea.

21:30ean: Koadrilen arteko afaria Ostatu jatetxean.

22:00etan: Txikienezako musika festa.

Ondoren: Tapia eta Leturia taldearekin dantzaldia.

5:00etan: Baratzuri zopa Erbie elkartearen.

Abuztuak 17, gaudea: San Roke Txiki eguna:

11:00etan: Meza nagusia, herrian hildakoen alde.

Ondoren: XVII. Tiragoma txapelketa. Bola eta toka herritarrentzat (izen ematea 13:00etan itxiko da).

19:00etan: Ardo beltz banatzea.

Arratsalde eta gauean: Joselu Anaiak musika taldearen eskutik dantzaldia goizaldera arte.

23:00etan: Suziri festa ikusgarria.

Abuztuak 18, astelehena:

17:00etan: Urtero bezela, herria garbitzea. Lanean aritu eta festetan parte hartu duten guztiek, merezitako afari merienda batekin amaiera emango diete herriko festei.

18:00etan: Aztiriko XIII. Patata tortilla lehiaketa. Amaieran pintxo eta ardo banatzea.

19:00etan: Bola eta toka lehiaketak.

Arratsaldean eta gauean, bertsoak eta erromeria. Kupa, Narbaiza eta Larrañaga arituko dira bertsoetan.

Uztailak 20, igandea:

10:00etan: Goiz eresia Gabiriako txistularietan.

11:00etan: Meza Nagusia eta Aztiriko IV. Mendi lasterketa.

12:30ean: Gabiriako Goruntz dantza taldearen saioa.

13:00etan: Mendi lasterketako sari banaketa.

Ondoren: Iker Zubeldia eta Iban Urdangarin bertsolariak eta Andoni Larrañaga eta Ion Ansorregi trikitilariak.

17:30ean: Trikitilariak eta bertsolariak.

18:30ean: Asto lasterketa eta herri kirol erakustaldiak: Esnaola eta Ugarteburu aizkolariak; Maider Manzisidor eta Lourdes Galarregi trontzan; eta Mieltxo Saralegi harri jasotzen.

19:00etan: Gipuzkoako bola txapelketa.

Goizaldera arte: Trikitilariak.

Gabiria

Santa Marina jaiak Aztirin

Uztailak 18, ostirala:

10:45ean: Kanpai joaldia eta etxafuego jaurtiketa, jaien hasiera adierazteko.

11:00etan: Meza Nagusia.

12:00etan: Salda eta mokadu goxoak Aztiri-bat elkartearen, 'Katain eta Eguzkitza' trikitilarietako alaiturik.

12:30ean: Idi proba erakustaldia.

17:30ean: Gaztetxoentzat ume jolasak eta txokolate jatea.

19:00etan: Bola eta toka lehiaketak auzotarrentzat.

21:00etan: Auzo afaria Benta-Lehor jatetxean, Jesusen Jazz-Bandak alaiturik.

Uztailak 19, larunbata:

16:30ean: Helduen eta gazteen arteko futbol partida Gainzabal zelaian.

Zerain

Andre Mari jaiak

Zeraindarrek oraindik egitaraua erabat zehazteko badaukate ere, hona hemen aurrerapentxo bat:

Abuztuak 13, asteazkena:

20:00etan: Ohiko gibel-jatea Liztormendi elkartearen.

Abuztuak 14, osteguna: Andre Mari bezpera:

11:00etan: Umeentzat puzgarriak plazan egun gutzian.

13:30etan: Haur-bazkaria.

15:00etan: Jaialdia (mozorroak, antzerkiak...).

16:00etan: Jolasak.

Ondoren: Merienda.

17:00etan: Puzgarriak.

20:00etan: Pregoia, suziriak eta kanpai-bueltakoak festei hasiera emateko.

Segidan: Sagardo-edana eta txekor-jana. Bitartean trikitilariak.

Gauean: Gozategi taldearekin erromeria.

Ondoren: Disko gaua euskal DJ batekin.

Abuztuak 15, ostirala: Andre Mari eguna:

9:00etan: Txistularien goiz-eresia etxez etxe.

11:00etan: Meza Nagusia

10:00etan: Andre Mari bola txapelketaren hasiera. Izen ematea 9:30etatik aurrera.

11:30etan: Herriko gaztetxoaren pilota partidak.

12:30etan: Txakolin dastatzea.

17:00etan: Bola txapelketaren bigarren saioa.

18:00etan: Herri kirol saioa.

19:00etan: 45 urtetik gorakoen IV. Dantza txapelketa.

19:30etan: Gazteen triki-poteoa, Dani Oiarbide eta Pello Urdangarin trikitilariekin.

21:00etan: Gazte-afaria

23:00etan: Erromeriaren hasiera Trakets taldearekin

01:00etan: Asto-karrera

Ondoren: Erromeria goizaldera arte.

Abuztuak 16, larunbata: San Roke eguna:

9:00etan: txistularien goiz-eresia etxez etxe.

10:00etan: San Roke bola txapelketaren hasiera. Izen ematea 9:30etatik aurrera.

12:00etan: Meza Nagusia

Ondoren: herriko agintarien dantza-soka

17:00etan: Bola txapelketaren azken saioa.

16:30etan: Herri afaria. (Mahaia gordetzeko 6etarako eman behar da izena). Ohi bezala bertsolariak izango dira.

Ondoren: Erromeria Laket taldearekin.

Abuztuak 17, igandea:

15:00etan: Herri txukuntzea.

Lazkao

Udako ekintzak

Uztailak 22, asteartea:

22:00etan: Goierriko bertsolariak, Euskadi plazan: Iñaki Apalategi, Iban Urdangarin, Ainhoa Mujika, Joseba Agirrezabala, Endika Igarzabal, Julen Agirre. Gai jartzen: Jokin Murua.

Uztailak 23, asteazkena:

22:00etan: Drindots musika-taldea, Euskadi plazan.

Abuztuak 6, asteazkena:

21:30etan: 'Biderdi': Koldo Amestoy ipuin kontalaria, Maizpideko zinema-aretoan.

Abuztuak 12, asteartea:

21:30etan: Bertso-trama: Unai Iturriaga, Beñat Gaztelumendi, Aitor Sarriegi eta Maialen Lujanbio; tramagilea: Josu Goikoetxea. Maizpideko zinema-aretoan.

Abuztuak 20, asteazkena:

21:30etan: Aitor Furundarenaren kantaldia, Maizpideko zinema-aretoan.

Abuztuak 28, osteguna

21:00etan: Dani Oiarbide eta Iker Zubeldia trikitilariak, Maizpideko jangelan.

Irailak 3, asteazkena:

21:00etan: Josune Bereziartuaren 'Pasio batera lotuta' ikusentzunezkoa, Maizpideko zinema-aretoan.

Idiazabal

San Inazio jaiak

San Inazio auzoan, festak ospatuko dituzte uztailaren 31tik abuztuaren 2ra bitartean.

Uztailak 31, osteguna:

12:00etan: Meza San Inazio ermitan.

Ondoren: Hamaiketako eskainiko du udalak.

19:00etan: Sagardo dastatzea pintxoekin batera. Ondoren, mahaiak jarriko dira nahi duenak bertan afaldu dezan.

23:00etan: Txerri harrapaketa.

Ondoren: Mariatxiekin dantzaldia.

Abuztuak 1, ostirala:

17:30etan: Asto karrera.

Iluntzean: Aferia eta Legazpiko gazteen kontzertua.

Abuztuak 2, larunbata:

15:30etan: Mus txapelketa.

19:30etan: Toka txapelketa.

Gauean: Estolploff gaua.

AHT-aren aurkako kanpaldia Zaldibian

Uztailak 24, osteguna:

19:30etan: Triki-kalejira Zaldibiako kaleetan.
23:00etan: Ongi etorri batzarra, jantokian.

Uztailak 25, ostirala:

11:00tan: Prentsa tailer praktikoa, Kultur Etxean.
15:30etan: Bizikleta martxa herriz herri. **20:30etan:** Bertso saioa plazan: Aitor Sarriegi, Unai Muñoa, Uxue Alberdi eta Iñigo Mantzisor. Gai-jartzailea: Zaldibiako Bertso Eskola. **23:30etan:** Mara 'euska kabareta', Antzokian.

Uztailak 26, larunbata:

11:00etan: Tailerra: 'Borroka egoera ezberdinen aurrean nola jokatu', Kultur etxean. **15:30etan:** Jendearteko Aurkezpen batzarra, jantokian. **18:00etan:** Akanpadatik Ordiziako manifestaziora oinez. **20:00etan:** AHTren Aurkako manifestazioa Ordizian. Goierriko AHT Gelditu! Elkarlanak deituta. **22:00etan:** Kontzertua Ordiziako Gaztetxean: Erantzun (Zarautz), Annunaki Revenge (Araia) eta beste talde bat.

Uztailak 27, igandea:

10:30etan: Mendi martxa: Mariaratz bailarari itzulia.
14:30etan: Herri bazkaria Lazkaoko pilotalekuan.
17:00etan: Hitzaldia: 'Naturaleza, ruralidad y civilizacion' Felix Rodrigoren eskutik, Lazkaoko pilotalekuan.
19:45etan: Lazkaomenditik oinez akanpadara.
23:30etan: Antzerkia: 'Klowntuz! mendia' antzezlan, jantokian.

Uztailak 28, astelehena:

16:00etan: Itsasondora oinez Aramatik. **18:00etan:** Batzarra Itsasondon. Eliza ondoan: Akanpadatik erresistentzia-gunera. **23:30etan:** Kontzertua: 'A muerte con todo' eta 'Mantalano', Antzokian.

Uztailak 29, asteartea:

11:00etan: Tailerra: 'AHTren aurkako borrokaren bitarteko komunikatiboak', Kultur Etxean. **18:00etan:** Batzarra: AHTren aurkako borroka herrietan antolatzeko eta koordinatzeko era ezberdinak, antzokian. **23:30etan:** Gorka Setienen poesia emanaldia eta musika, jantokian.

Uztailak 30, asteazkena:

12:00etan: AHTren aurkako kontzentrazioa Ordiziako azokan. **18:00etan:** Umeentzako Zirko Eskola, Zaldibiako pilotalekuan. **18:30etan:** Hitzaldia: 'Crisis medioambiental más probreza extrema: crónica de un colapso anunciado'. Ondoren, Kubari buruzko diapositibak. **23:30etan:** Antzerkia: 'Monologo anti-carcelario'. **Ondoren:** Kontzertua: Jaxpe, antzokian.

Uztailak 31, osteguna:

Goizean tailerra: Nekazaritza ekologikoa eta autogestioa: Beizamako Leundaberri baserrira bisita. **16:30etan:** AHTrik ez, elkartasun martxa, Ordiziatik Legorretara. **19:00etan:** AHTren aurkako mokadutxo, Legorretako plazan. **20:00etan:** Legorretako Zinema aretoan ekitaldia: Joseba Tapia trikitilaria, Miren Artetxe eta Julen Zulaika bertsolariak, SOS Temible antzerkia eta bideo laburrak.

Abuztuak 1, ostirala:

11:00etan: Tailerra: 'Rol jokoak: borroka estrategiak'.
23:00etan: Batzarra: Akanpadatik erresistentzia-gunera.

Abuztuak 2, larunbata:

10:00etan: Mendi ibilaldia Gaztelura edo Osinberdeko putzura. Bazkaria Osinberden. **19:00etan:** Hitzaldia eta bideoa: 'La cara oculta del ave: destruccion de acuíferos en el valle de Abdalajis (Malaga)'. Ondoren, 'AHTren eraginak Udalaiz eta Aralar mendietan'. **23:30etan:** Kontzertua eta festa: 'La suerte esta hechada' (Audio), 'Vagos y maleantes' (Valentzia), 'Dune Buggy' (Beasain) eta DF Norman Duval. Antzokian.

Abuztuak 3, igandea:

12:00etan: Euskal jolas eta jokoak. **17:00etan:** Batzarra: Akanpadaren balorazioa eta erresistentzia-gunearen antolaketa.

Goierritarra
943 16 00 56
goierritarra@goierrikohitza.info

GOIERRIKO **hitza** info
943 16 00 56
goierri@goierrikohitza.info

San Inazio, 14 BEASAIN
☎ 943 889 390

Garagartza pl., 1 ORDIZIA
☎ 943 805 327

San Franzisko, 8 TOLOSA
☎ 943 650 239

Lurrindegia eta opari gaiak

ZUBARA
Ereikuntzak s.l.

Promoziok, Ereikuntzak, Erreformak... 943 65 34 93 - 649 46 32 89
ABALTZISKETA

MUJIKA 19

MUJIKA
LIBURUDENDA

Tel. / faxa: 943 88 11 94
Kale Nagusia, 19 ORDIZIA

LANA

eskaerak

Aizkorpe bailarako turismo bulegoetan lan egiteko langileak behar ditugu. Bidali kurrikuluma: aldabe@aldabe.com-era.

Zerbitzaria behar da. Kotxearekin. 12:30etik 21:00etara, astelehenetik ostiralera. 943723798 - 628158443. Monika.

Beasaingo Gaztegunean lana egiteko begiraleak behar dira. Asteburuko lana. Eskatzen da: Ega eta begirale titulua. Hezikuntzarekin zerikusia duten ikasketak baloratuko dira. 653735090.

Beasaingo akademia batek frantsesa eta ingelera emateko pertsonak behar ditu. Bidali curriculuma 61 posta kutxara. 20240 Ordizia edo www.ikaskide.net edo deitu bestela 943160120.

Beasaingo akademia batek fisika eta marrazketa emateko pertsona behar du.. Bidali curriculuma 61 posta kutxara. 20240 Ordizia edo www.ikaskide.net edo deitu bestela 943160120.

Beasaingo akademia batek kontabilitatea, estadistika eta finantza-matematika emateko pertsonak behar ditu. Bidali curriculuma 61 posta kutxara. 20240 Ordizia edo www.ikaskide.net edo deitu bestela 943160120.

Zerbitzari euskalduna behar da tabernarako. 678211206.

eskaintzak

Informatikako klase partikularrak emateko neska eskaintzen da. Office, korreo elektronikoa, photoshop, argazkiekin bideoak egin... 679556586.

Hemendik aurrera,

iragarki labor guztiak
www.goierrikohitza.iragarkilaburrak.com
 helbidean eta
 ostiralero zure etxean

ETXEBIZITZAK

errentan hartu

Baserria hartuko genuke errentan, Goierri aldean. 635202146.

errentan eman

Nojan etxabehea alokatzen da, lorategiarekin eta igerilekuarekin. Asteka. 635755839.

salgai

Beasain. Etxebizitza salgai: 3 logela eta bainu bat. 254.000 euro. 636980339.

Lazkao. Etxebizitza ederra salgai, duplex erakoa. 3 logela,

egongela-sukaldea, 2 bainu, teiatu azpian beste gela edo estudio bat belusarekin. Balkoi txikia eta terraza handi bat. Oso eguzkitsua. Interesatuak deitu, 639864354.

Ordizia. 5 urteko etxebizitza salgai, Zuberoa kalean, Gazte-txearen atzealdean. 665748645.

Zumarraga. Esteban Orbe-gozon, etxea salgai. 943082537 - 676297910.

ANIMALIAK

opari

Artzain txakur kumeak oparitzen dira. 652769268.

Oihalak
Haurdunaldiko arropa
Ume jantziak

Tel.: 943 08 65 66 Oriamendi 27 BEASAIN

IÑAKI ARIN
aseguruak

943 888 702 Oriako pasealekua, 20 BEASAIN

LOINAZARGI

Jose Lasa, 8-10 - LAZKAO
Tel.: 943 164 846
627 505 687 (instalakuntzak) - 670 471 106 (mantenimendua)

- Elektrizitate gaiak
- Argiteria
- Etxeetarako hornikuntzak
- Mantenimendua
- Telekomunikabideak

Ikaskide
irakaskuntza eta pedagogia

UDA 2008


ESKOLA LAGUNTZA:
Lehen Hezkuntza, DBH, Batxilergoa, moduluak Errekuperazioak eta ikasketa teknikak

UNIBERTSITATE MAILA:
Enpresaritza, Injeniaritza, Kimika eta Fisika

INFORMATIKA, MEKANOGRAFIA
INGELERA IKASTARO TRINKOIA
BERRIA! FRANTSESA

Joan Iturralde, 5 solairuartea - BEASAIN - www.ikaskide.net
943 160 120 - 685 722 403 - 675 006 462

MATRIKULA 2008-2009 IREKITA



www.iragarkiLaburrak.com
uztarria.iragarkiLaburrak.com
txintzarri.iragarkiLaburrak.com
otamotz.iragarkiLaburrak.com
elgoibarren.iragarkiLaburrak.com
soraluze.iragarkiLaburrak.com
bidasoamedia.iragarkiLaburrak.com

ukberri.iragarkiLaburrak.com
oarsoaldekoHitza.iragarkiLaburrak.com
tolosaldekoHitza.iragarkiLaburrak.com
11barri.iragarkiLaburrak.com
uroala-kostakoHitza.iragarkiLaburrak.com
irutxulokoHitza.iragarkiLaburrak.com
busturialdekoHitza.iragarkiLaburrak.com

milaka bisita, egunero

saltzeko
erosteko
eskaintzeko
eskatzeko
aurkitzeko

...

zure-azoka

Erregistratu zaitez
eta jarri zure iragarkia **webgunean:**

norbanakoak
doan

enpresak
leku eskusiboa

*Jarri zure
iragarkia!*

Gainera, **ostiralero** paperezko edizioa
100.000aleko zabalkundearekin.



Ataungo Arrondo eskolako ikasleak

Lander Imazek utzitako argazkia 1964-65 ikasturte inguruko da.

Goitik hasita, lehen lerroa, ezkerretik eskuinera: Ramon Urdangarin, Juan Urdangarin, Jesus Gurrutxaga, Josefina Oiarbide, Maria Nieves Gurrutxaga, Alizia Mujika, Maria Nieves Goñi, ezezaguna eta Kontxita (maestra).

Bigarren lerroa: Joxemiel Galparsoro, Pedromari Galparsoro, Loentxo Aierbe, Dionisio Galparsoro, Venancio Sanzol, Iñigo Agirre, Jose Luis Vitores, Luis Urdangarin, Bixente Auzmendi eta Joxemari Auzmendi.

Hirugarren lerroa: Joxemari Aierbe, ezezaguna, ezezaguna, Mila Yoldi, ezezaguna, ezezaguna, Maria Teresa Luaces, ezezaguna, ezezaguna eta Juaninazio Erdozia.

Laugarren lerroa: Javier Vitores, Julian Gurrutxaga, Juanmanuel Luaces, Xabier Yoldi, Juanmari Sanzol, Joxe Urdangarin, Pedro Galparsoro eta Iñaki Eskisabel.

OVER Urraki
Bidaietan adituak

Kale Nagusia 42, behea **BEASAIN**
Tel.: 943 80 40 15 Faxa: 943 80 55 79
urraki@over.es www.over.es

ALDANONDO GARAJEA

MICHELIN zerbitzu ofiziala

Gurpil lanak,
alineazioa,
aluminiozko llantak
Filtroak, olioak,
engrasea
Frenu pastilak, tubo
eskapeak, bateriak
Harezko txorrotadak



Errota Poligonoa IDIAZABALgo sarreran ☎ 943 18 72 57

ARRIETA

JATE TXEA

Ezkontzak, jaunartzeak,
bataioak...
era guztietako
ospakizunak

☎ 943 88 00 02
OLABERRIA



Jose Agustin Jauregi

Tel. eta Faxa: 943 886 558
 Poltsikoko telefonoa: 616 698 288



ERAKUSKETA:
 Lorategiko eta terrazako altzariak, kolore ezberdinetako aluminio lakatuan

- Pankartentzat errotulazio bereziak
- Fatxadako toldoak
- Motorizatuak eta automatikoak
- Estaldurak eta itxidurak
- Toldoak alokairuan
- Kamioientzako toldoak: Tir toldoak
- Toldo korrederoen prestaketa
- Errotulazio eta inpresioa lonetan eta zurrunetan

Zubi-Erreka Industrialdea, 42 **LAZKAO**
 toldosagustin.com
 e-posta: auxkin@toldosagustin.euskalnet.net

BARANDIARAN
zeramikak

ERREF. MAK DISEINUAK PROIEKTUAK BAINUAK HIDROMASAJA

SEMPERE KALEA, 7, 1. LOKALA BEASAIN
 TLFNO. 943 887972 - FAX 943 888657
 e-mail : barandi@barandiaranzeramikak.com





PRIUS



Toyota Prius 22.500 eurotik

EuskoAuto

Karobi industrialdea z/g - OLABERRIA - Tel.: 943 805 926

BERGARA - ELGOIBAR - PASAIA - Tel.: 902 345 245



TOYOTA

www.euskoauto.toyota.es